

HONDARRIBIA


D. L. S. S. 122/86 No. 8. Faltzidaz. J. Añeta 27. IRLN

14. Zenbakia

UDAL EUSKARA AZPIBATZORDEA

50 pta.

1987 Ekaina



JUAN JOSE IRAZUSTA MITXELENA, Hondarribiko nekazari idazle bakarra izango dela uste dugu, eta horregatik dakargu **GURE PERTSONAIA** bezala aldizkarira.

JUAN JOSE IRAZUSTAK 86 urte bete zituen joan den apirilaren 25ean, eta Jaizubia bailarako **Zaldunborda-berri** baserrian bizi da osasuntsu, egunoro goizean goiz jeiki eta baserriko lanetan jotake ihardunez eguzkiaren azken printzak ezkutatuta arte.

Bisitari askok ikustatzen du Gaintxurizketa gain gaineko baserri hau, idazle famatu bihurtu den gizon hau ezagutzera joanak. Hirurogeita hemeretzi urtekin idatzi bait zuen Juan Josek **"NORK BERE BIDEA"** eleberria edo nobela, nork daki noren bizitza kontatuz bere liburu atsegin eta irakurgarrian, euskal literaturako zerrenda luzatuz Hondarribiko gizon apal eta interesgarri honek. Laugarren orrialdean elkarriketatzen dugu gauro pertsonaia.

Ale honetan baita ere azkenengo hauteskundeak emaitzak eman eta aztertzen ditugu, Udaletxe, Kofradia, Biteri, eta Amute-Mendeluko datok azalduz. Zinegotzi berrien izenak etabar agertzen ditugu, besteak beste.

UDAL ETXEA = HERRIKO ETXEA

Udalerako egin diren azkenengo hauteskundeek gorpazio berria osatzeko aukera ekarri dute. Zinegotzi batzu lehen ere lan horretan ibiliak direnez, ongi ezagutzen dute Udalak ematen duen lanari nola erantzun behar zaion. Beste batzu berriak berriak izanik, orain sartuko eta murgilduko dira herriaren aldeko lan berezi eta ederrean.

Lau urtetan udaletxeko eskileretan goiti behiti ibili beharrak, egunoroko arazoak azterketak, eta erabaki zuzenak eman beharrak, sakrifizio gogorra eskatzen die herriaren ordezkari diren zinegotziei.

Udaleko lanak, ordea, badu bere arriskua ere, eta horixe nahi dugu aipatu hemen. Hauteskundeak datozenean, promesa asko egin ohi da, herritarren botoak jasotzeko. Herriko arazo edo problema guztientzat badute erantzun edo soluzio egokia alderdi politiko guztiek. Badirudi lau urtetik behin egiten dela kontzientziako esamina, eta lau urtetik behin ematen zaiela errepasoa herriko arazo guztiei. Alderdi politikoek egiten duten jokoa halaxe izaten da hauteskunde aurrean. Gero?... Gero ahaztu egiten dira.

Herriak badaki, zoritxarrez, promesa horiek lehen ere egin zituztela, eta ez di-

tuztela bete, baina hala ere berritoki bere konfiantza ematen du, oraingo honetan zerbait gehiago egingo duten esperantzaz.

Zinegotzien erantzunkizuna edo erresponsabilitatea haundia da, herritarren ordezkariak direlako, eta ezin dituztelako herritarren gogoak alde batera utzi.

Alkatearen egitekoa ere garrantzi handikoa da. Herritar guztien alkatea izan behar duelako, batez ere. Nahiz eta alkatea alderdi politiko baten partaide izan, alkate den aldetik ez du batzuzentzat ona eta besteentzat txarra izan behar. Alkateak ahaztu egin behar du bere alderdi politikoa alkatetzat guztiona eta guztientzat izan behar duelako.

Udaletxea **HERRIKO ETXEA** bihurtu behar da. Marfilezko dorrea izatetik, benetako **herriko etxea** izatera etorri behar du, herritar guztientzat laguntzaile, babestzaile, antolatzaile, denentzat administrari zuzen izanaz, alkatetik azkenengo zinegotziarte.

Bestaldetik, modan jarri dira orain zoriareko paktoak, hau da, alderdi pare bat elkartu, eta bien artean bakarrik agindu, udaletxeko beste alderdi politikoak baztertu. Hau dispartate bat da, zeren Udala zinegotzi guztiek osatzen dute, eta ez da egokia eta zuzena zinegotzi batzku guz-



tiz baztertuak edukitzea, azkenengo zortzi urte hauetan gertatu den bezala.

Udalak beste bide bat hartu beharra dauka, herri osoaren **herriko etxea** izan nahi badu, behintzat. Herriko etxean ez alkateta eta ez zinegotziak ez dira harrotu behar euren partidoak besteak baino zinegotzi gehiago duelako, eta ez da zinegotziarik baztertu behar haren partidoak txikiago delako. Zinegotzi guztiak dira herri osoaren ordezkariak, eta guztien gain dago herriko administratza eraman beharra.

Ordua da alderdi politiko batzuren harrokeriak alde batera uzteko, bide horretatik ez goaz inora eta, desilusio eta gorrotora ez bada. **"Guk agintzen dugu, eta zuek ixol!"** esateko eta egiteko gariak gehiegi egagutu dugu zoritzarrez gure herriko udaletxean, eta ez daitezela errepikatu eskatzen dugu.

"Demokrazia" hitza aho betez erabiltzen duten horiek, ikasi dezatela besteren eritzia entzuten eta onartzen. Eta ez **"gu demokratik gara"** esan, baina ekintzetan diktadore txiki batzuk izan, beurena bakarrik entzunaz eta eginaz.

Udaletxea = Herriko Etxea, herri guztia eta herri osoarena eskatzen du herriak, ez batzuren "koto" eta agintetokia.

Hauteskunde ondoren eta alkateta berria jarri aurretik sortzen zaizkigun eritziak dira, askatasun osoz esanak.

OHARRAK

EUSKARAZKO MEZAK

LARUNBATETAN:

Arratsaldeko 6retan, haurrentzat, Portuan.

Arratsaldeko 7,30tan, Portuan.

IGANDETAN:

Goizeko 8retan, Guadalupen.
Goizeko 8,30tan, Betharran.
Goizeko 9retan, Amuten.
Goizeko 11retan, Portuan.

TXANDAKO OKINDEGIAK

Ekainak 21: Martinez
28: Arratibel

Uztailak 5: Garmendia
12: Martinez
19: Arratibel
26: Garmendia
26: Martinez

TXANDAKO BOTIKAK

Ekainak 15-21: Iraola
22-28: Erauskin
29-30: Mayi

Uztailak 1-5: Iraola
6-12: Erauskin
13-19: Mayi
20-26: Iraola

BASERRITAKO BIDEAK

Aldizkari honetan piskanaka piskanaka ari gara azaltzen nekazariak dituzten arazoak. Gaur ukituko dugun gaia **baserritako bideena** izango da.

Gaur egun baserrietaraino dauden bide gehienak baserriarrek beurek eginak izan dira, nahiz gero udalaren eskuetan utziak izan. Gure aitonei esker dira gaur egun ditugun bideak. Beuren izerdi eta lanari esker eginak izan ziren bide gehienak. Oraindik ere nabaritzen dira non diren bideak egiteko egin ziren harrobiak, izerdi eta lan askotako harrobiak.

Gaur asko aldatu dira bideak, bai konpontetaren aldetik, eta baita bidearen erabiltzearekin ere. Honetaz, hain zuzen, egin behar dugu hitz hil honetako alean.

Azken urte hauetan aldaketa izan dugu, orain dela urte batzuk udalak oso diru gutxi ematen zuen bideak konpontzeko, eta bakarra harnia botatzen zen. Azken urteotan, berriz, Foru Aldundiaren laguntzarekin eta auzoko jendearen indarrarekin, hormigoiez konpondu dira bide batzuk; baina leku askotan ez da kontuan hartu gaur dabilztan kamioiak ez direla lehenengoak bezalakoa, eta hautsi egin dira bide asko kamioien pisuaz.

Beste bide batzuk berriz, ez dakite edo ez dute ikusi oraindik hormigoirik. Hau udalaren ajolaezagatik izan da...

Bideak konpondu egin behar dira, baina ez azkar bukatzearekin hormigoio oso meharra bota, baizik eta gaur egun diren kamioiak eta hauen pisuari begiratuta, horren arabera bota behar da hormigoia, eta bide sendoak egin.

Ezinezkoa dena da, gaur baserriar batzuk aukera baldin badu pentsu, lasto, alapa kamioi handi bat ekartzeko, ezin duena egin hau da, etxe ingururaino kamioi handian ekarri eta gero bitan banatu. Hau oso garestia ateratze da, eta hori da ezin duguna onartu. Guk eskatu behar duguna garbi dago: gaurko egunari tokatzen zaion bezalako bideak edukitzea baserri guztietaraino, bide zabalak eta sendoak.

Eta berdin zubiak haunditu eta zabaldu, eta kondiziotan jarri.

Hau da benetan laguntzea baserriarrei.

Ximon



Alkizenea

EUSKARAZKO IRRATIAK

- Euskadi Irratia, Donostia 94,5 FM
- Gure Irratia, Baiona 89,6 FM
- Irulegi Irratia, Irulegi 93,2 FM
- Xiberoko Botza, Maule 94 FM
- Arrate Irratia, Eibar 101,50 FM

ANA MARI AGIRRE

Janaridenda

Guadalupe Auzoan Tel 641773

HONDARRIBIA

1983an egin ziren aurreko udal hau teskundetarik, 1987ko ekainaren 10ean egin direnetara, alde ederra nabaritu da hondarribiarren botoetan.

Lauki honetan ikusiko duzu aldaketa:

P.N.V. ren zatiketak ekarri duen ondorioa garbi agertzen da alde batetik, E.A. ren jaiotza ere hor dagoelako bere indarrarekin.

Bestetik, H.B. ren gorakada ere garbi ikusten da, bikoiztu egin bait ditu aurreko emaitzak, bai botoetan, bai zinegotzi kopuruan, E.A. ren azpitik geratuz 4 boto-gatik bakarrik.

Herriko eskualdeei begiratzuz, hona he mezen lehengo eta oraingo emaitzak:

Udal Hauteskunde bakoitzeko botoen kopurua.

Beste konparaketa ere egin dugu, alegia bi Parlamentutarako egin diren azken hauteskundeena: Gasteizko Parlamenturako 1986-XI 30ean egin zirenak, eta 1987-VI 10ean Europako Parlamenturako eginak:

Lauki honetan ikusten denez, alderdi guztiak egin dute behera, **Herri Batasunak** erik.

Orain kuestio geratzen dena, Udalak nola geratuko den, ez alkaté nor izango den bakarrik, baizik eta Gobernu Kontseilua, Batzordeak etabar. Berdin jarraituko al da auzo, gazteria, etxebizitza, euskara, kirol, arrantzale, etabar, etabar arazoetan?

Alfredo

Alderdi politikoa	1983			1987			Aldea
	Zenbat boto	Zenbat zinegotzi	%	Zenbat boto	Zenbat zinegotzi	%	
E.A.	-	-	-	1.956	6	31	-
H.B.	962	3	19	1.952	6	31	+ 103%
E.E.	641	2	12	774	2	12	+ 21%
P.N.V.	2.769	10	54	648	2	10	- 77%
P.S.O.E.	793	2	15	606	1	10	- 25%

Horrela, zinegotzi berriak, hauk izango dira:

Eusko Aikartasuna: Alfonso Oronoz, M^a Concepcion Portu, Manuel Larrarte, Jose Ignacio Lopez, Juan Ocerin, eta Juan Antonio Letamendia.

Herri Batasuna: Esteban Olaizola, Fermín Urtizberea, Pako Zubelzu, Pili Sagazazu, Joseba Urkizu, eta Jose Ramon Eparan.

Euskadiko Eskerra: Jose Luis Barkaiztegi, eta Bittor Aldabe.

Eusko Alderdi Jeltzailea-PNV: Prudencio Lekuona eta M^a Carmen Gezala.

Partido Socialista Obrero Español: Ramón Laborda.

Alderdi politikoa	UDALETXEA		KOFRADIA		BITERI		MENDELU-AMUTE	
	83	87	83	87	83	87	83	87
E.A.	-	328	-	533	-	693	-	402
H.B.	177	275	229	512	337	743	219	422
E.E.	129	129	191	152	183	278	138	215
P.N.V.	494	125	793	185	894	199	588	139
P.S.O.E.	200	118	110	64	178	145	305	279

Alderdi politikoa	1986			1987			%ko aldea
	Zenbat boto	%		Zenbat boto	%		
E.A.	2.205	33		1.858	30		- 16%
H.B.	1.350	20		1.765	28		+ 31%
E.E.	888	13		764	12		- 14%
P.N.V.	1.048	16		617	10		- 44%
P.S.O.E.	833	12		606	10		- 27%



JUAN JOSE IRAZUSTA MITXELENA

Larunbat arratsalde eguzkitsuan Zaldunborda-berri baserrira iritsi garenean, pakea dario Gaintxurizketa kaskoko paraje zoragarri honi, txorikanta eta inguruko errepediko kotxe zaratetik bakarrik hausten dutarik hango baretasun ezia.

Bazkalondo losustatik jeiki berria da Juan Jose eta, baserri atarian, arbolapeko gerizpetan eseritzen gara.

Txapela buruan, ahoan pipa, tirante zabalak galtzei utsiz, hemen daukagu gure idazlea, begi bizi eta bizkor, sudur luze, eta gorputz mehar, zimel eta ihar. Bere alboan emaztea, Margarita Altuna, bergarra, eta bi alabak, Juli eta Irene, honen senarra eta haren seme bat, Iñaki.

—Nola bururatu zitzaizun adin horretan nobela bat idaztea?

—Ez dakit ba. Hirurogeita hamabosten bat urte banituen lan horretan hasi nintzen. Nik beti pentsatzen nuen banuela zer bait interesgarria kontatzeko eta pena emango zidan idatzi gabe utzteak.

—Non jaio zinen?

—Hor beheko baserrian, Kamiotxikin jaio nintzen 1901-eko apirilaren 25ean. Irungo Lasalle eskolan zer bait ikasi, eta gero dena batian dependiente egon nintzen. Soldadutzako garai etorri zitzaizkidan berriz, Afrika-ra jua beharko nuela eta Argentinara egin nuen ihes. Buenos Aires, Patagonia, Panpak... dena korritu nuen, artzantza lanetan. Hamabi urte egin nituen han, eta buelta. Harrezkero hemen bizi naiz.

—“NORK BERE BIDEA” nobela idazteko, zorrek ere asko irakurriko duzu.

—Bai, asko eta denetik leizten dit. Nik onak eta txarrak leitu ditut, liburunik gaiztuena ere bai: “LA MAGICA NEGRA, EL LIBRO INFERNAL”. Liburu gaiztuagorik ez da posible. Austriako batek eman zidan Patagonian, eta nik gustora leitu nuen bai. Nire lagun bat erotu egin zen liburu hori letuta, arront erotua. Kozinerua zen, eta eitzaki sutan utzi eta haize-errotak badira han ura ateratzeko, ba hoietara jua eta harrika hasten zitzaizen demoniak zirela eta. Lo ere ez zuan egiten gurekin. Arrunt erotus geratu zen liburuarekin, Satanasek hitz egin ziola eta sinesten zuten.

—Norekin egin zenuen hitz, liburu idaztea pentsatu zenuenean?

—Ezta inorekin ere, andriari ere ez nion deus esan. Ni goizian goiz jeikitzen nintzan, eta dena ilunpetan egin nuen, nik egun argiz ezta deus ere ez dut eskribitu. Ilunpetan eta isiltasunean. Jeikitzen nintzen igual hiruterdiaren, eta eman!, taka



taka taka taka, ondo etortzen zitzaidan. Baina batzuetan ataka bat bezela aurrian, eta alto! Juan izandu naiz batere eskribitu gabe ohiera berriz ere. Gero tartian pertsonaje bat edo beste sartu eta segi aurrea, lehen utzitako sokari beste punta bat iratsi, eta aurrera. Edozeinik eskribitu dezake hala hasi ezkerre, denak dute zeozter kontatzeko.

—Nobelan agertzen diren pertsonajetarik, zu izango zara bat, ezta?

—Ai, hori ez diot inori aitortu oraindik. Argentinara eta Euskal Herrian gertatzen dira nobelako historiak, eta hor agertzen direnak batzuk benetakoak dira beste batzuk nik asmatuak... Horietatik zein naizen ni, hori da denak jakin nahi dutena; nire emaztiak eta seme-alabek ere nahi lukete jakin, baina ez da dena esan behar...

—Kazetari asko etortzen al zaizu?

—Jesus!, hemendik pasatu diren periodistak... Rebiga denetatik etorri dira hona. Badakit zuek ere nahi zenuela orain dela urtebete, baino orduan gaisorik nengibilen, operatuta, pipa asko erretzen dut eta. Hemezortzi urtetatik hona trailer bat tabaku erria dut honezkero.

—Nola ikusten duzu gaurko gaztedia?

—Oraingo gaztedia asko konturatu da, gero eta gehiago, ikusten bait du mundua nola diujan, dena kontaminatua, dena zikinkeria. Orain gaztiak garbitasuna nahi dute, eta gainera pakia. Zer nahi duzu hori baino gauza ederragorik? Ni ere ekologista naiz; lehenago ez, lehen ehiztari amorratu nintzen, orain pena ematen dit txoriki hiltzia. Gainera, naturaleza ob-

serbatzia gustatzen zait. Gaztiak ere guk baino gehiago begiratzen diote naturaleari. Eta zaharrentzako ere beste gauza bat dute, gure garaian baino gehiago. Denbora batian zaharrak baztertuak bezela egoten ziran baserrian eta. Orain beste estimazio bat dute guretzako alde guztietan. Gaztedia oso ondo datorrela uste dit. Gaiztakeriak eta badirela, baina gaiztakeria gehienak lehen ere bazegozten.

—Zer da hobe, dirua ala osasuna?

—Dirua? Ez dago osasuna bezelakorik. Oroitzen naiz han Argentinan, goizian jeiki nahi denian, presik ez, hamarrak al-dian igual, zaldia hartu, tapa tapa, tapa tapa, hango belar gozauk eta, zaldiak zantzen zuten goizeko intzakin belarraren usia... Osasuna? Han ez dira hiltzen oso zaharrak ez badira.

• • •

Hiru ordu luze egon ginen solas ederrean Juan Joxeren sendiarekin.

Giro freskoa egiten zuen Zaldunborda-berriko gerizpetan, eta Juan Jose ez zen isiltzen Ameriketako eta hemengo gauzak kontatzen. Guk, ordea, ezin jaso bere esan guztiak. Baserri ingurua ere erakutsi zigun, lizar eta udarondo, belardi eta sagarrondo, larrosa eta krabelin, baratza eta utxi...

Hantxe bizi dira paketsu eta osasuntzu senar-emazteak, oso ongi zaindutako etxeinguru alaiak.

Eskerrak eman genizkien eta hurren arte esanaz agurtu genuen elkar.

HONDARRIBIA lon

Matteo Gizaseme berdingabea

Matteo gizaseme berdingabea dela konturatu da egun hauetan. Bakardadea zer den ordea badaki. Maiz askotan bakarrik sentitzen zen, bai etxean zegonean, bai kanpora ateratzen zenean eta jendearekin egoten zenean. Zenbat eta zenbat bider gertatu zitzaion koadrillaren erdian egotea, paseatzen hor barrena batzutan, tabernaz taberna bestetan eta izugarriko tristura barrenean sentitu edota aspertua egotea giroan sartzen ez zelako. Matteok bazekien aspaldidanik bakardadearen kontrako irtenbidea ez zegoela jostaketetan. "Irtenbidea beste nonbait egon beharko dik", zioen bere barruan.

Erreperatu da bere nortasunatzat eta zerbitararako balio duela. "Ni Matteo naiz —esan dio bere buruari— halakoaren eta halakoaren seme. Nik pentsatzen du-

dana "x" da, gustatzen zaidana "y" da, tristatzen nautena "z" da, etabar. Nere ogibidea halakoa da, egiten ditudanak zer-baitetarako balio dezakete, hala esan ditzake eta neronek ere nere lanaren zen-bait fruitu ikusten dudalako. Guzti honek pozaz betetzen nautelako, neru ere ondu-san bat naizela konturatu naiz". Ideia hauek pentsatzen eta sakontzen ibili delako konturatu da Matteo gizaseme berdingabe dela.

Bai. Lehen Matteo oso bakarrik eta besteengandik oso urrutu sentitzen zen. Zergatik ordea? Nahiko irrealista zelako uste bait zuen besteek ezinezko opariak egingo zizkiotela, besteak ahuleziak besterik ez, azpimarratzen zituelako, zerbait zor zitzaiola uste zutenen eta ez baldin bazitzaion ematen, mutur egin eta umore

txarrez jartzen zelako, besteak kritikatzeko eta menderatzeko behar-baharrezkoak zitzaizkiotela, bere burua gaitzaile agertu eta arriskuan jarri nahi ez zuelako. Holako jarrerak izanda, oso zaila da besteen laguna izatea eta oso zaila ere norbere burua jasatea.

Orain Matteo bada gauza patxadan bakarrik egoteko eta lagun-artean, berdin. Badaki berdingabea dela. Ikasi du ezezko bakardadea, lehenik eta printzipalki, norgeure buruarekin lasai eta bakean elkarriketak egiteko gai gogorenean gaintitzen dela. Are gehiago, momentu horiek oso baliotsu eta gogoko zaizkio; momentu horien premian dago eta konparatu egiten ditu bere lagun onenaren konparatzen egoteko betekirin.

Bejondeizula, Matteo!

Guadalupe Artola

ERROGATIBAK

Joan berria zaigun maiatza eguraldiz oso aldakorra eta nahasia izan dugu: hegoaldean jaiki eta gauerako ipar fina; hai-ze mendebala zurrinbiloan ordu batetik bestera; otza orain, eta sargoriaren itobeharra abiadan... Jertsia kendu, jantzi, bota, jaso eta lepotik eseki dena ia ordu baten barruan!

—Erreuma honek baldatuko nau orain-gor honetan! —dio espigoinaren hasieran eserita haurtxo bat zaintzen dagoen amonak.

Ni ondoan nago, eta eguraldiaz kexa neure ere, egia hutsa baita.

Nire eskuinean dagoenak ere badu zer esanik: "Hemen errogatibak ege da ez eguraldirik konponduko"... Begiratzin diot ezezagunari: "Bai, bai —esaten dit txapelaren azpitik— ez dakit zeuk sinesten duzun... baina neure horretan nago."

Eta itsasora begira geratu da.

Hiruogeita hamar bat urte izango ditu, txukun jantzia dago, makiltxo mehe bat eskuan, oinetan espartin urdinak... "Ez al didazu sinesten?", desafioa begietan; neroni kurioso samarra izan eta baietz esan diot.

—Hara —jarraitu du gizonak— ni, neure, gaur kaletarra naiz, baina baserrian jauzi nintzen eta bertan hamaika lan egina naiz; baita fabrian ere, baina dakiten guztia nire amonagandik baserrian ikasi nuen... Errogatibak, diot, zeuk badakizu hori zer den?..."

—Noski ba..."

Gizona zeoro nireganatu dut.

—Lehorte handitarako bakarrik erabili behar da; hemen eguzkia eta hegota dira beldurgarrienak; itotzen zaitutze, batez ere ganadua! Seinaleen zain egon behar da: muskarrek abesten badu, lehorte handia; muxarra pago zuloetan sartzen bada, berdin, hegota; sukaldeko sua txinpartaka hasten bada, txarra... Parrez zaude?... hor dago errogatibaren beharra!

—Eta euririk egiten aldu?..."

—Bai, noski! Ez al didazu sinesten? "

—Baietz; eta euritea nagusitzen bada? "

—diot gizonari— euririk ere egiten ditu kalteak..."

—Bai, noski; honetarako ere badira seinaleak: hara, armiarma beltza jeisten bada, edo lurretik arrak eta txinguriak iritelen hasten badira, euria; berdin xixareak gehiegi mugitzen hasten direnean; behiak eta ardiak gorputza arrotu eta hastintzen hasten direnean, ekaitza..."

—Ekaitzentzat ere ba da errogatibarik? "

—Bai, jauna —hasarritzen hasiko zait, itsasoari begiratzin badago ere tximistargiek zerua argitzen dutenean, gure herriko apaiza torrera igo eta bakarrik egiten ditu hariaren kontrako errezuak; eta hala eta guzti hari erortzen bada, hartzen ditu hiru harri eta surlara botatzen ditu..."

—Adidazu —diot nik— baina lehorte-rako errogatibak ez duzu aipatu..."

—Ba, horixe, herri osoa joaten zen lehen apaiza eta monagiloak daraman gurutzearen atzetik, herri bakoitzak badu bere itzulia, eta gau hartan jaramonean edo hirugarren egunera beranduen, ikusi-ko duzu euria goitik behera gozo-gozo goitik behera..."

—Inbento zahartxo ez al da hori? —galdetzen diot, zirikari... Eta hala ere... lainorik agertzen ez bada? "

—Ba, esango dizut neure herrian fatiatzen ez duena: ba dugu San Antonio bat, ba honek egin ditu milagroak, santua goitik bera urez buzti, edo, oraindik hobe, santua hartu eta putzuan sartu... eta euria derrepente!..."

"Epa!... Badijoia autobusa!... Hurrengo bat arte..."

Eta han dijoa oraindik lirain-bizi-arina dagoen gizona, txapela buruan, makiltxo xume bat eskuan, jertsei bat bizkarrean, oinetako espardiri urdinak oinetako.

Gaurko mirariak... Han sartzen da autobusean lehottarra. Hondarririko itsasora txorartzen begira egondu den jibatuta.

Baserritarra eta jubilatua, hara beste inbentua!

Inbentu ona.

Ba, belarria adi jartzea besterik ez dago horrelako konfidentziak entzuteko.

Martin Ugaldé

"UDALEKU IRIKIA"

Aurten ere, ikusiaz igaz izandako harreka eta martxa ona, Udaleteak "Udaleku Iriki" antolatuta du. Ekintza honen helburua, haurren opor-garaiak, garai alai eta probetxagarri bat bihurtzea da.

Bertan 8 urtetatik 12 bitarteko haurrek (bi hauek barne) parte har dezakete. Udaleku hau begirale batzuren zuzendaritzapean egongo da eta bertan honako ekintza hauek burutuko dira:

— Espresio plastikoa eta eraikuntzarako tailerrak: margogintza, txotxongiloak, buztina...

— Gorputz espresiorako tailerrak eta jokoak: gorputza espresioa, mimoa,...

— Ingurunearekin loturikoak: mendira eta hondartzara txangoak,...

Udaleku honek Uztailaren funtzionatu du, goizeko 9 t'erditatik 13 t'erditara, astelehenaetik ostirala arte eta bi taldeetan banatuta: 1. taldea, Uztailaren 1etik 15era, eta 2. taldea, Uztailaren 16tik 30era.

Parte hartu nahi duen haur bakoitzak 1.500 pezeta ordainduko du eta izen ematea Udalan izango da ekainaren 4tik 17 bitartean, goizeko 9etatik 12tara.

"1987 JAI NAGUSIETARAKO KARTEL LEHIAKETA"

Hondarribiko Udalak, 1987ko Jai Nagusietarako Kartela argitaratzeko Lehiaketa bat eratu da honako oinarri hauek arabera:

1. Kartelen luze-zabalera 58x 43 cm, koka izango da.
2. Horretarako edozein teknika erabili dezakete (argazkia, margoa, ...)
3. Bertan derrigorrez honako testu hau agertu beharko du:

HONDARRIBIKO JAIK

1.987ko Iraila

4. Lehiaketa honetan, Hondarribian jaio edota bizi diren guztiek eskuhartu ahal izango dute.
5. Irabazleari 40.000 pezetako saria emango zaio.
6. Kartel hauek Udak idazkaritzara eraman beharko dituzte 1.987ko Uztailaren 1eko hamahiru orduak baino lehen.
7. Lan hauek, egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira, atzekoaldean lema bat idatzita daramatelarik, honekin batera datorren kartazal itxi baten kanpoaldean, aurkeztutako lanaren lema eta kartazalaren barruan egilearen izan-abizenak, helbidea, N.A.N.ren fotokopia eta telefonoa idatziko ditu.
8. Lehiaketa honetara aurkeztzen diren kartelak, horretarako izendatuko diren leku eta datan jendaurrean jarriko dira.
9. Saritugabeko lanak, beuren jabeek jaso ahal izango dituzte erakusketa amaitzen denetik hogeitamar eguneko epearen

barruan, epe hau bukatzean jaso ez dituztenak Udalaren esku geratuko dira eta jabeek ez du inolako kalteordainik eskatzeko eskubiderik izango.

"BORDARI" eta "SATARKA" literatura lehiaketak

Lehiaketa faltan ez gaude. Aurreko alean aditzera eman genuenez, literatura lehiaketa hau irekita dago. Oinarriak argitaratzeko leku faltan gaude bainan jasotzeko aukera duzue bai Udalxete bertan eta bai aurrezki kutxetan.

ESKIFAIA TXIKI

Maiataren bukaera (29, 30, 31) Eskifaia Txiki Asturias aldera joan ziteaigun. Covadongan ospatzen den haur abesbatzen festival batera konbidatuak izan ziren. Hogeit bat abesbatzek parte hartu zuten eta Eskifaia Txiki izan zen euskal talde bakarra. Jakin izan dugunez, sekulako txaloak jaso dituzte bertan eskeinitako saio derrargen sari.

Ekainaren 7an Pasai San Pedron, Jaizkibel bailarako haur abesbatzak itopara batean elkartu ziran eta, noski, han izan ziran gure haur kantariak.

ESKIFAIA ABESBATZA

Eskifaia taldeak badu zeregin udaberrirarte honetan:

— Ekainaren 8 astelehena, Santurtzin kontzertu bat emango du eta beste bat hilaren 11ean Donostiako Victoria Eugenia antzokian.

— Hilaren 17an Italiara doaz, Fano hirian ospatzen den festival batera konbidatuak bait daude.

— Bestalde, Eskifaia Otsailaren egin-dako Bartzelonarako bidaiaren erantzuna orain jasoko dugu, Bartzelonatik "Canti-ga" abesbatza hilaren 26an heldu bait da honera.

Maribi Mariskal

Udal-liburutegiko Maiatzeko estadistika:

Liburu erabiliak	1.369
Lan orokorrak	136
Umeentzako liburuak	826
Zientziak	274
Literatura	133
Euzkaraz	253
Irakurleak	1.101
Gizonezkoak	572
Emakumeak	529
Umeak	837
Helduak	264

Euskararen portzentaia Apirilaren konparatzen badugu, 4, 47% igo da.

Kote Gebara

Santiago bezperako antzerkia. — Hondarribian urtero egin ohi den bezala Santiago bezperan bi antzerki saio eman nahi lirateke, bata haurrentzat eta bestea helduentzat, bi emanaldi hauen kostoa 330.000 pezetakoa izanik.



S. Pedro kalean Tel. 642734
HONDARRIBIA

LAPITZ JANARIDENDA

Erosketa hobek

S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIA

IKASLEEN JAIALDIA

Joan den Maiatzak 17 Eskolen arteko jaialdia ospatu zen. Oso harrera ona izan zuen bai partaite bai ikasleen aldetik.

Aipagarriena aurkeztzailearen lana izan zen. Oso ongi bete bait zuen animatzailearen papera. Zorionak Gurutze:

Ikasleen partizipazio aldetik, zenbait gauza ondo prestatunik zeudela esan behar da, besteak ez haih ondo; azken momentuko gauza zirudien eta.

Tailerretan gustora ibili ziren hurbildu ziren guztiak, batez ere buztinezko lanak egiten.

Giro alaitu zabaldu zen eta goiza oso ongi pasa genuen.

TXONTXONGILO

Ikastolako bigarren etapako zenbait talde Euskera eta interpretazio teknika lantzeko txontxongilo aurrera daramate.

Hau horrela eta zenbait saio egin dituzte Ikastoletako eskolaurretan, bai Hondarribian, bai Txingudi Ikastolan.

Oso harrera ona eta positiboa izan dutenez bailaran zabalteko asmoak dituzte, bai Oiarzun bai Hendaia aldera.

MURALAK

Plastikako ekintzekin aurrera jarraituz, muralarena aipatuko dizuet.

Egun hauetan gure herriko partetetan zabaldua dagoen hainbat eta hainbat kartel eta pintadaren artean, arretaz begiratu ondoren, zenbait berezi ikusiko duzue.

Hezi eta paret batzuetan mural koloretu batzuek agertuko zaizkizue aurrean. Pailasok, sorginak, aberak, natura zainketa aldarrikatzen eta beste zenbait gaiet buruz eginda daude.

Hortaz aritu eta ari dira Ikastolako zenbait ikasle.

Hauteskundeak pasa ondoren eta egunak aurrera dijoztelarik, paperezko propaganda desagertzen joango da. Ez ordea ikasleen marrazketak, pinturaz eginik bait daude!

TENISKO TXAPELDUNA

Maiatzeko azken igandean Eskolarte-ko txapelketaren sari banaketa ospatu zen. Ez dugu hortaz hitz egingo, aldizkari honetako orri batzuetan hortaz arduratuko bait dira.

Aipatu bakarrik, lehiaketa honatik kanpo gelditzen den kirol bateko txapelduna ere gure artean dugularik. Hau tenisen aritzen den eta bere izena Iñigo Llorente da, 6. mailako ikaslea, bera gelditu bait da Euskal Herriko Txapelduna, "alebin" kategorian. Zorionak!

Loli

OHE HEGALARIA (ala!!)

Ohe hegalaria, beno egia esan ez dakigu hegalaria ote den, berak, gutxiarik horrela dio. Hala ere gauza batzu zihur badakizkigu, haritzaz egonik zela eta DC-10 batean bizi zela, agian horregatik zioen hegalaria zela.

Bere mairidiri txuriek bere zuraren kolore ilunarekin kontrastatzen zuten.

Bere ahalte lumaz eginko lumetan pertsona askok eta batzuk oso ezagunak lo egin zuten, Alkachov, Ron Reegan, Digo Armado Maraton... Nahiz eta berak ez onartu, bere burkotaz maitemindurik zegoen eta kontatu behar dugun guzia berregatik gertatu.

Luzaro zen burkoak gimnasariak egin ez zuela eta bigundu zen eta halako gau batean Basiliskoaren Erregeak bere gain lo egin zuen eta esnatzean, izugarriko lepo-ko mina zuela esanik, ohea zakarontzira bota eta burkoa bere gaztelura eramane zuen han torturatzearren.

Egun horretantxe egin zuen Basiliskoaren Erregeak bere bizitzako akatsik haundiena: ohea bizirik utzi zuen.

Asko kostata oheak zakarontzitik ateratzea lortu zen, eta hantxe, mairidie guztiak zikinik eta funda berezi hori zeriela, egin zuen zin mendekatuko zela eta burkoa Basiliskoengandik salbatuko zuela.

Basiliskoaren gazteluruntz atera baino lehenago ongi prestatu zen, bere lurraldeetat asko irakurri eta ahal izan zituen mapa gehienak osatu zituen; lan horretan arazo larri bat izan zuen zeren gazteluan inguratzen zuen lur eremutaz ez zuen datuik aurkitu, soil-soilik esaldi motz bat: "KONTUZ, KONTUZ GAZTELU INGU-RUAN!"

Inguruko animalietaz informatu eta dokumentatu egin zen eta hauen kontra prestatu zen. Gauza batek harritu zuen Basiliskoetaz ohartu (luze ohartu) ondoren; zera jartzen zuen: "HABITAT: ARRISKUGARRIA!"

Zer esan nahi zuen horrek? Ezin izan zuen jakin. Hilabete baten ondoren bere burkoa salbatzera irten zen.

Ohan misterioitsuak igaro ondoren, kobazulo ilunak gainditu ondoren eta beste mila arrisko jasan ondoren, gaztelua ikusi zuen. Mendi garai baten magalean zegoen eta horren inguruan iluntasun sakon bat besterik ez zen nabari, bertan sartu zen eta iluntasun haren barruan desagertu zen.

Han barruan hilik ote zegoen galdetu zion bere buruari, ez zuen ikusten, ezer sentitzen, lurra zapaldu gabe zebilen aurrera, beti aurrera.

Azkenean "Gaztelu Madarikatura" iritzi zuen, horrela bait zuen izena. Bere aurrean ate izugarri bat aurkitu zuen. IIIIIIAAAUUUUU! Ate zaharkitu hura ireki zuen. "Arraia" bere aurrean Basilisko gudaroste bat zegoen.

Bere burua martxan jarri zuen. "Basiliskoak begiradaz hiltzen duten piztiak dira" gogoratu zuen. Azkar asko gordeta zeukan izpilia atera eta denak harriturik gelditu ziren.

Errexa izan zen harritzko irudi haien artean burkoa aurkitzea eta pistolaz Erregea hiltzea.

Gaur egun oraindik itzultzeko bidearen bila dabilza.

Pedro Azkona 8. A



IZEN JATORRA

ITERLIMEN ALA ARKAIZPEA?

Toki-izenetan axolakabekeriz egin diren hutsetarik handienetako bat oso berria zaigu. Berria denez, bazterteia ere errezagoa iduritzen zait. Hortarako, agintariak jabetu behar dira, izen jatorriari ofizialtasuna emateaz gainera letrero adierazgarriak garaita eta egoki jarri behar diren tokietan. Baina, hortarako ere, lehen lehenik kriterioak finkatu beharra dugu. Hau da, kale berri bat idekitzean edo etxe batzuk eraikitzean izen jatorriari lehentasuna ematea. Leku-izena, berez, historia eta hizkuntzaren ondarea bait da.

Arkaizpea zeritzan tokian Iterlimen entrespresak etxeak eraiki zituen eta toki hori ofizialki Paseo de Ramón Iribarren bataitatu. Hala ere, jendeak entrespresarenakin ezagutzen du, sarrerako antzintza inartatsua iragarriarik jarri zutenaz. Hara hor axolakabekeriz baten ordeiz bi huts. Zeren letreroak non eta nola jarri ere Udalari dagokio.

Bizi garan herrialdea maite badugu, izen horrek zuzenketa eskatzen du. Esana dugunez, arbasoek mendeak zehar eskaini duguten ondarea biharko belaunaldientzat etenez ukatzeko eskubiderik ez bai dugu. Ondarea, gerokoena gurea hai-na da.

Iterlimen zentzugabe hori batzertzeko ez dut uste inork eragozpenik jarriko duenik, baina Ramón Iribarren zenari errespetoa zor diogu. Hala ere, honen izena, han edo beste nonbaiten oroitari txukun bat jarri edo parterren bati soil soilik eskaini merezi du bere oroitza gordetzea. Baina, toki hura Arkaizpea zen eta hala behar du iraun. Orografiak, historiak eta hizkuntzak hala eskatzen du. Ofizialki jartzea eta behar bezalako iragarkiak han ipintzea Udalari dagokio.

Izenak eta horien ingurua aztertzeak aukerako liburuak eskaini zigun Florentino Portuk, **Fuenterrabia. Notas históricas y curiosidades hasta 1969** deritzana. Liburu hortan dator 1785eko maiatzean Hondarribiko Udaletik **Diccionario Geográfico-Histórico de España** (1802an argitaratu zen Hondarribia) hura osatzeko Real Academia de la Historia ikeritza zen agiria. **Diccionario** hartan, egia esan, laburpena baik ez zen argitaratu, baina Porturen liburuan agiri osoa dator, 7. orrialdetik 21.era. Agiri horren parte batean itsasotiki sarre- eta ingurua deskribatzen da, Santhelmo eta hondartzak bitarte hori Arkaizpea zeritzala.

Arkaizpea, izen naturala bezain egokia. Bakoitzari berea, Jaingoaren legea. Euskalduntasun izpirik dugun artean zaindu beharrezkoa denez, berbataitza mezezi du: ARKAIZPEA.

Juan San Martin

Legatza

Maiatzaren hasierak berdelaren kosterrari bukaera eman zion, eta berehala legatzetan hasi ziren barkuak. Arrantza onak egin ziren hilaren haiseran, bai Askoten, eta bai beste kala batzuetan ere.

Salneurriak ere onak ziren, eta guztiak konten. Peskadilla bakarrik zen nahiko merke saltzen genuena, eta irteera emateko zailena. Egia da peskadilla zela gehien ekartzen zena ere, eta horregatik ezin saldu. Maiatzaren lehen hamabostaldian, prezioak honela joan ziren: **Legatza, 1,150 pta; mediana, 860/720 pta; eta peskadilla, 624/511 pta.**

Antzia

Antxuaren kosterrari buruz, maiatza da hilaiberetik, onena, baina aurtengoak ez du itxuririk hala izango denik.

Gure ustez, Iparraldeko ontziek dute kulparik haundiena, euren sare pelagikoak botatzen dituztelako. Antxua, berriz, guretzeko behar beharrezkoa da, Euskal Herriko ontzi guztientzako.

Kostera aurrera, edo hobeta esanda, kostera egiteko sasoiak doa aurrera. Beti antxuaren esperantzaz bizi behar hau ere ez da pozgarria, baina tira!... Guk uste dugu gure itsasora zaindu egin behar dela, eta ez dela ondatu behar, bestela esaerak diona: "gaurkotz ogia, biharkotz gosa". Hondarribiko arrantzaleok hala pentsatzen dugu, baina ez dago urrutira joan beharrik beste modu batera dabilzala ikusteko.

Gainera, zer?, guk ere egingo genuke sare pelagikoekin, bai horixe, badugu hor-

tarako abildadea. Baina... geure kalterako izango zen, eta horregatik ez gara hasien beste batzuk bezala, ez bait dugu nahi gure itsasoa hiltzea. Benetako arrantzalea ongi konturatzen da problema honez, eta hala eusten diogu geure moralari. Nik ez ditut **benetako arrantzaleztat** josten beste sare horiekin dabilzanak.

Maiatzaren 14an, ia 100.000 kg. antxua sartu ziren, hala ere. Prezioa era askotako izan zen, 500/350 pezetaraino jeitsiz. Hurrengo egunean ere beste horrenbestel itxaron zen, baina alperrik!, ezer gabe etorri ziren barkuak, eta eguraldi txarrekin gainera.

Ez da izan ona, ez, aurtengo kostera. Eta halaxe doaz urteak, azkenaldi honetan. Zerbait salbatu bada, ez da izan arrantza haundiak egin direlako, prezioak gutxiak. Ez dira salneurri normalak izan. Adibidez, 28, 29, 30 eta 31 alekoak, 350 pezetetan saldu dira. Martxa horretan, antxua lataren prezioa laioetan jarriko da, eta erosi behar duenak, edo erosi nahi duenak, bi alditan pentsatu beharko du dendara sartu aurretik.

Izan ere, joaten zara lata txiki txiki bat erostera, eta barruan sei antxua-filete besterik ez, eta 120 pezeta ordaindu behar! Hori mokadu garestia! Ba aurtengoekin egingo direnak ere ez dute errebajarik ekarriko. Nahi duenak, soltatu beharko du poltsa.

Bukatzeak, esan dezagun legazketari ongi dabilzala, peskadilla legazmanez batez ere. Salneurriak ere jetsi dira, normalean bezala: **Legatza, 850; mediana, 610 pta.; eta peskadilla, 410/400 pta.**

Andres



AROZENA - ALBISTUR

Harategia

Zuloaga kalean Tel. 641860-641331
HONDARRIBIA

EROSLE

Santiago kalean

Tel. 641540

HONDARRIBIA

HERRI DEMOGRAFIAREN GOTTIBEHERAK

UDALA

JAIOZAK

APIRIK

- 25: DORLETA Diaz Alza
Koldobika eta Itsasoren alaba.
San Pedro, 16.
- 27: GILLERMO Dilla Ubarretxena
Jesus eta Anaren semea.
Santiago Konpostela, 5.

MAIATZAK

- 1: MAIALEN Marin Arriaga
Angel eta M^a Karmenen alaba.
San Pedro, 10.
- 3: IÑAKI Aginaga Azurmendi
Esteban eta Maitearen semea.
Alaiak, 2.
- 9: IRENE Da Cruz Gutierrez
Zeohuinha eta Milagrosen alaba.
Zuloaga, 4.
- 12: DAVID Sanchez Zato
Jose Ramon eta Josefaren semea.
Iru-zubi, 1.
- 12: AINHUA Uranga Larraide
Jose Ramon eta M^a Angelesen alaba.
Alkizenea, 4.
- 15: MIKELDI Miranda Odriozola
Felipe eta M^a Lourdesen semea.
Iru-zubi, 5.
- 16: MAITE Salaberria Gezala.
Fco. Javier eta M^a Arratzen alaba.
Harategi, 16.
- 21: FERNANDO Busto Bergaretxe
Carlos eta Rosaren semea.
Anton-sundi-enea, 11.
- 25: JABIER Uriarte Esteban.
Iñaki eta M^a Jesusen semea.
Elkarrekin, 4.

EKAINAK

- 1: JON IMANOL Garmendia Noguera
Imanol eta M^a Nievesen semea.
Una Harresia, 8.
- 4: YUDIT Narbarte Goikoetxea
Fermín eta M^a Josefaren alaba.
Lur-gorri, 3.
- 5: MARTXEL Iridoi Amunarriz
Maximo Manuel eta M^a Guadalupen semea.
Soroetaberri, 8.

EZKONTZAK

MAIATZAK

- 2: VICENTE Gofi Tolletxea
48 urtekoa - Nafarra.
- LIDIA Saez Garrido
34 urtekoa - Donostian jaioa eta Hondarri-
bian bizi dena.
- 9: SALVADOR Mendizabal Unsin
24 urtekoa - Hondarribiara.
M^a ESTIBALIZ Egia Laka
24 urtekoa - Pasaian jaioa eta Hondarribian
bizi dena.
- 23: TOMAS ROMAN Corres Campo
33 urtekoa - Hondarribiara.
M^a CONSOLACION Bereziartua Zipairin
35 urtekoa - Iruñen jaioa eta Hondarribian
bizi dena.
- EKAINAK
- 6: MIGEL ANGEL Esponda Murua
33 urtekoa - Hondarribiara
GURUTZE Aginalalde Ondarrola
23 urtekoa - Hondarribiara.

HERIOTZAK

MAIATZAK

- 9: JOSE Silvo Iglesias
78 urtekoa - Zubietako kalea, 2.
- 13: ANGELA Susperregi Errazkin
62 urtekoa - Txomorroñeko baserria.
- 16: TOMAS Yara Iriazabal
78 urtekoa - Santiago Kalea, 11
- 27: MIGEL Arruabarrena Iridoi
91 urtekoa - Etxegorri etxea - Kosta
- 30: M^a DOLORES Guridi Arbelaitz
62 urtekoa - Josu Langile, 3.

EKAINAK

- 1: ANTONIO CARLOS Sarmiento Rodriguez
60 urtekoa - Mendelu kalea, 3.

Udalako presupuesto edo aurrekon-
tuak. Joan den hilaren 14ean egindako
Pleno batean, eta beti bezala estabaida
gogorra sortu ondoren aurtengo Udal
aurrekontua onartua izan zen.

Iaztik honera aurrekontu hauek ikara-
garritzko igoera izan dute, aurtengoa 864
milioi t'erdikoa zen bitartean joan den ur-
tekoa hiru ehun eta pikoa zen. Ikusten du-
zuenaz diferentzi handia dago batetik
bestera.

Goazen ikustera aurrekontu honetako
numero garrantzitsuenak:


Diru sarreraren artean Diputazioetik zen-
bait obra egiteko Udalakidetzat izeneko por-
gramagatik 62 milioi, kasino zaharra kon-
pontzeko 42 milioi Zuloaga etxe antola-
tzeko 45 milioi, Udaletxea konpontzeko
Pts 7 milioi eta joan den urtean Udalak
edukitako superabita 50 milioi.

Bestalde Zerga zuzenak, hau da kon-
tribuzioak eta abar 117 milioi t'erdia, zehar-
kako zergak 21 milioi, eta beste suben-
tziak 176 milioi, denera, Udalak aurt-
en 864 milioi t'erdia hartuko duelakoan dago,
eta jakina hori hartzen baldin badu gas-
toak ere berdinak behar dute izan.

Irteeraren artean berriz diru gehiena
eramaten duena langileen soldatak dira,
ia ia 190 milioi bait dira. 187 milioi era-
maten dute urteko gastu korrientak, edo
eguneroko gastuak, eta inbertsioak 400
milioioak izango dira, kasino zaharra,
Udaletxea, kanposantua, eta beste zen-
bait gauzak.

Beraz lehen aipatzen genuen bezala
aurten gure Udalaren presupuestoa edo-
zein herri haunditakoa bezalakoa izango
da 864.448.845 pezeta juxtu juxtu.

• • •



HONDARRIBIKO EGURALDIAREN DATOAK

EGURALDIA 1987	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza
Bataz besteko tenperatura	8,2	7,3	9,6	10,3	8,6
Maximen bataz bestekoa	10,2	12,3	14,9	20,0	18,8
Minimen bataz bestekoa	1,7	5,0	6,3	9,7	10,2
Tenperatura gorena	20,8	23,0	22,8	29,4	29,0
Tenperatura beheena	- 4,4	- 1,8	- 0,2	3,4	6,2
Euri-litroak	127,4	219,5	128,7	96,9	54,0
Egun euritsuak	16	28	17	13	13
Ordu eguzkitsuak	80,8	64,9	129,5	193,1	187,6

ALFREDO OROÑOZ

Negu-Udaberriko tenporadari amaia eman diogunean, **HONDARRIBIKO KIROL TALDEKO lehendakari izan den Alfredo Oronoz** nahi izan dugu elkarrizketatu. Kirol Talde hau oraindik nahiko berria da Hondarribian, baina ekintza ugari antolatzen du, eta egin duen lanaren bilduma baten bila joan gara lehendakari honengana.

— Nola eta zergatik sortu zenuten taldea?

— Nik uste dut guztiek dakitela nola izan zen sorrera. Hondartzako txapelketa plaiero inguruan ibiltzen ginenok elkartu ginen orain dela urte para bat, eta bazkideen lanari esker aurtien inauguratu dugu gure **HONDARRIBIKO KIROL TALDEA**.

— Zenbat lagunek disfrutatu dute aurtien Hondartzako Txapelketan?

— Donostiatik hasi eta Bidasoarainoko hogei ekipok. Hau dena antolatzen hogen bat lagun ibili gara, bazkideak gehienak. Eguraldi txar ala on, hortxe saiatu gara igandero gauzak ongi prestatzen.

Lehen fasea Urriatik Apirilera jokatu zen, liga modura, Hondarribiko XAJA-KAIALDE ekipoa gertatuz txapeldun, eta bigarren Erretererriko **EUSKALDARRA**.

Gero, Apirila eta Maiatzean, Kopa jokatu zen.

— Eskoletako kirolen ardura ere baduzue?

— Gu eskolekako futbol sailera mugatzen gara. Hogeita hamar ekipok hartu dute parte, eta guk 300 partidoko baino gehiago arbitratu ditugu.

Gero, eskubaloia ere landu dugu, Norica-Hondarribia bidez. Hau esperientzia oso ona izan da, eta hurrengoan ere jarraitzeko asmatan gara.

— Laguntza aldetik, zer duzue?

Ofizialki deus ez, oraindik. Udal Kontseiluari eskatu diogu, eta zain gaude. Gero, futbolaria dela eta hondartzako inskripzioarekin, zerbait ateratzen dugu. Sariak emateko ere jendeak laguntzen du.

— Datorren igandeko Batzarrean zuzendaritza aldatuko al da?

— Nik uste dut J. Albisu izango dela lehendakari berria. Gainera, 48 bazkideak 4 edo 5 komisiotan banatuko dira, euren lanak hobeto eratzeko. Jaietako programan ere nahi dugu parte hartu. Bestalde, orain arte eskolekin izan dugun harremana, badirudi Diputazioak klub federatuen alde dagoela lan hori egiteko, eta gu ez gara federatuak. Gu lantzeko prest gaude, hala ere.

— Eskerrik asko, Alfredo, aldezkariko egin dituzun agerpenagatik.



ARRAUNLARI TXIKIAK

Puntal aldera goaz, zerbait jakin nahirik, eta hantxe aurkitzen ditugu **S. LARZABAL, ARISTI, JAUREGI** eta **M. TOVAR**, gaztetxo talde batekin bezala. Santiri hurbiltzen gatzazkio, eta galdetzen diogu.

— Zenbat mutiko dabilte aurtien zuen **ARRAUN-ESKOLAN**?

— Berrogei inguru etortzen dira asteoro.

— Ze adinetakoak dira?

— 10/16 urte bitartekoak. Ia eskola guztietatik datoz. Hasieran ikastolakoak bakarrik ziren, baina orain denetatik. Egia da ikastetxe guztiek ez dutela gero berdin erantzuten.

— Nola ikusten duzue zuen lana ikastetxetan egiten diren beste kirolekin?

— Hasieran guk beste asmo bat genuen, alegia beste kirolak bezala honekin ere eskolekako txapelketa antolatzen, edo halako zerbait, baina gero ikusi genuen ezin zela hori aurrera eraman, zeren asteoro konpetizioak dituzte. Gainera, hona datozen mutikoek beste kirolekin ere parte hartzen dute, batzuk behintzat. Dena dela, guk ofizioa erakusten diegu, eta horiek izango dira bihar Hondarribiko arraunlariak.

— Zein konpetiziotan hartu duzue parte aurtien?

— Zazpitan edo zortzitan. Gipuzkoa-

ko txapelketan txapeldun geratu dira, eta beste batean bigarren. Euskadiko txapelketan, zazpigarrenak izan ginen, eta hori guretzako oso ondo dago, zeren asko joan ginen.

— Hala ibiltzeko, eta materiala erosteko ere, zuek diru asko maneiatuko duzue, ezta?

— Gu Club de Remo barruan gaude, baina errealtatean bakarrik aurkitzen gara. Geuk konpondu behar ditugu arazo guztiak.

— Zer? zuek ordaintzen duzue guztia?

— Ez, ez! Aurtien Arozena Harategiak, eta Prikako Garmendia jaunak asko lagundu digute, eta datorren urtean ere beste horren beste bilatuko beharko dugu.

— Udaletxetik ere jasoko duzue badiara?

Guk ez dugu ezer ikusi orain arte. Emaiten omen dute arrauna promozionatzeko, baina guretzat ez da deus izaten. Herriak jakin egin behar du bai itxuraz bi dirukontu daudela hemen. Instalazioak ere ez ditutela utziko amenazatu gaituzte, baina gu ere erantzuna gogorra da: Udaletxeko diruarekin edo dirurik gabe, guk aurrera egingo dugula datorren urtean ere, eta ez bakarrik infantil eta kadete mailan, jubeniletan ere bai.

Hala izan dadila. Agur.

Juanjo eta Erramun





DIRU HOBERIK EZ DAGO.



Diruak dakartzan eragozpenak pila bat izan daitezke, horregatik zurekin ez eramatea hobe duzu.

Horretarako, hauxe duzu soluziorik egokiena:

AURREZKI-KUTXA MUNIZIPALEko KUTXA TXARTELA.

Estatuko 2.500 kutxazain automatikoetan eskudiruan bihur dadin, eskua za-baldu besterik ez bait duzu egin behar. Eta horrez gainera, denda askotan eta Hongo darribiko guzti hauean dirurik gabe ordaintzeko baliagarria izango zaizu ere.

Eska ezazu oraindik ez baduzu.

KUTXA TXARTELA
Erosketak ordaintzeko balio handikoa.



Hemen, eros ezazu KUTXA TXARTELAekin. ■

RESTAURANTE ABARRA

Baserriak 10/10/10

RESTAURANTE AINHOA

Berriak 10/10/10

HOTEL ALVAREZ QUINTERO

Berriak 10/10/10

RESTAURANTE AQUARIUM

C. Zuloaga, 10

SUPERMERCADO SOKOA

Centro Comercial Sokoa

MUEBLES ALONDA

Centro Comercial Sokoa

ELECTROMUEBLES GEURIA

Fuenterria 10

SESSA

Gran Lario, 4. bajo

ELECTRICIDAD KAJA

Javier Ugarte

CAJAZARROS IKUSI

Javier Ugarte, 7. bajo

EDERRI

Javier Ugarte, 8

RESTAURANTE ARKAUNLARI

P. Borda (Ere Ala)

MUEBLES MARTINEZ ORTIZ

P. Fico, 12

KUTXA

P. Fico, 3

BOUTIQUE ROS

Pico, 21

RESTAURANTE JAIZUBIA

Peladao Vasco de Urkizubi

RESTAURANTE BIKO ERROTA

S. Izabela

BOTEL JAUREGUI

San Pedro

TXALUPA

San Pedro, 41. bajo

ORIOZ

San Pedro, 8

ITXAS LOPE

San Pedro, 63

OPTICA JAVIER

San Pedro, 12

RESTAURANTE ARKANTZALE TXORDO

San Pedro, 21

RESTAURANTE ZERIA

San Pedro, 23

RESTAURANTE ITXASPE

San Pedro, 32

MARISOL

San Pedro, 67

ELECTROMUEBLES GEURIA

San Pedro, 8

ASADOR MANOLI

Santiago, 41. bajo

RESTAURANTE OSTARTE

Santiago, 72

JUAN ALCAIN JAUREGUI, S.A.

Zuloaga

BAR RESTAURANTE LA HERMANDAD

Zuloaga, 10

GAZTELU SPORT

Zuloaga, 10

ASADOR KUPELA

Zuloaga, 4

GAREN

Zuloaga-Gara Martiño-Erea

JOTERIA GARDIN

Zuloaga, 35

REGALDS NORAT

Zuloaga, 35

**AURREZKI-KUTXA
MUNICIPAL**



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL**

Bukatu da, bai bukatu zaie oraingo zinegotziari beure aginte denbora, orain jende berria sartuko zaigu eta ziur aski aldaketak sumatuko dira. Jende berriak ideiak berriak ekarri beharko dute.

Nolanahiko aldaketa izan da gure Udalan, baina hortaz beste leku batetan hitz egingo dugu eta, hemen Udak txokoa denez gero zerbait aipatzea derrigorrezkoa irudituko zaigu. Hala ere, badira azkeneko hilabete honetan hartutako erabaki batzuek eman beharra eta hortara goaz urrango lerrotan.

Kaiaren haunditzea edo ez haunditzea dela eta, hemen askotan aipaturiko gaia dugu eta ez dirudi oraindik bukatu dugunik. Hala ere nahiko normala da, gaia oso oso garrantzizkoa baita da gure herriaren etorkizunerako.

Ba gaiarekin jarraituz zera esan behar dugu hil honen 6an Losada Jauna, Santanderko Unibertsitateko Teknikoa Udalan egondu zela bere estadiorekin berri emateko. Han zeuden ia ia zinegotzi guztiak, eta kofradiako lagun batzuk ere, bilerako oso interesgarria izan omen zen, eta Losada Jaunaren agerpena entzun ondoren estabaida polita sortu ere, arrantzaleak modu batera ikusten, zinegotziaren artean irizti desberdinak, eta abar, dena dela estadioko esaten duena gutxi gora behera hau da: kaja haunditu daitekeela hondartzari inoliako kalterik egin gabe, hala ere komenigarria dela hondartzara ere haunditzea, hau da, hondarra espigoiaren muturreraino eramatea, honela bertako urak askoz gehiago garbituko direla ta, eta azkenik, hor dagoen Club Nautiko beltatik kendu eta beste nunez jarri beharko dela, estadioko lekua ere aipatzen duelarik.

Dena dela, gaia hor dago, estadioko eginak eta orain Udalgizon berrak ekin beharko diote.

Ijitoak. Gehienak esagutuko duzue Damarin bizi diren ijito familia, Bernotarrak, urteak daramate bertan, famili ederra da benetan: amona, senar-emazteak eta ume pila bat dira; hor ibiltzen dira txartarra bitzen, sekulan ez dira inorekin sartu, eta herrian nahiko ondo integratu dira, umeak eskolara joaten dira, eta beurek edozein egunetan ikusi ditzakegu dendetan erosketan egiten eta abar.

Ba orango honetan hauei ere tokatu zaie bere loteria. Hil honen bederatzia edo hamarra zen han etorri ziren Irungo Juzgado bizi tip, Donostiako Prokuradore bat eta Bernotarrak bizi diren etxeko nagusia eta bere semea, hoiak etxetik botatzera. Zer gertatzen zen honela jokatzeko enteratu nahi izan genuenean, aliklerik ez



zutela ordaintzen eta Juezak etxetik botatzera erabakia omen zuen.

Bernotarrak berriz beraiek hilero errenta pagatzen zutela eta ez zela eskubiderik beraiek honela jokatzeko. Hau komeria.

Enteratu ahal izan genuenez Bernotarrak hilero hilero ordaintzen omen zuten errenta, baina dirudienez ez etxeko nagusiari, honek beste bati alkatatu omen zion etxea eta hark ijitoei. Hauek hiri ordaindu bai, baina hark ez zion nagusiari ordaintzen; total Alfred Hichkok-en pelikula zirudien. Alataz ere, gauza gertatzen ari zen, eta ijitoak kalera.

Han zeuden Udako bi zinegotzi, Jueza, eta etxeko nagusiak akordio batetara irizti ziren: hamabost egun itxarotzeko Udalak itenbide bat bilatzen zuen bitartean.

Orain nolabait Udalaren esku dago familia honi itenbide bat bilatzeko.

Etxebeeste Enea. Etxe hau Obispo Plazan dagoen harrizko etxe eder hori dugu. Badakizue aspaldi hasi zirela etxe hori konpontzen, bingoa bat jarri behar omen zuten, jateketa ere bai, auskalo zenbat gauza egin behar zuten etxe horrekin. Azkenean obrak erdi bukatuta, erdi eginda hortxe gelditu zuen, ez atzera, ez aurrera. Ba, orain dirudienez, badakigu zer egingo duten, ez da ez bingoa, ez jateketa, ez taberna; auzokiek lasai egon ditezke, etxegile batek lau etxebizitzak egiteko baimena eskatu du, eta baita eman ere. Beraz, Etxebeeste Enea gure herriko etxerik ederretakoa hortxe geldituko da bere oraingo iturarekin, nahiz eta barrutik lau etxebizitzak eginak eduki, kanpoaldea bat baltitz bezala geldituko bait da.

Euskara Aspiatzordeko berriak.

Udalako Euskara Aspiatzordeak bere euskararen aldeko kanpainekin jarrai-

tzen du, eta oraingoan bi berri baditute emateko:

Lehenengoa, Udako Euskal Unibertsitatera joan nahi duten leguentzat diru laguntza eskaintzen du, eta ikastarotara joan nahi dutenei matrikulazioaren % 50 ordainduko dio Udalak. Beraz, norbaitek ikastaro hauekara joateko asmorik baldin badu Udalara joan dedilla laguntza horren eske.

Bigarrena, txekak euskaraz kanpaina rekin jarraitu nahi da, eta hortarako zozketa batzuek antolatzen ari da.

Datorren irailen eta urriaren herriko Bankuetxe edo Aurrezki kutxetan euskaraz txekak betetzen dutenei, txartel bat emango zaie, txeki bakoitzatik txartel bat jekina, eta hilaeren bukaeran Euskara Aspiatzordeak liburu eta kaseta sorta batzuek zozkatuko ditu. Honen ez du esan nahi orduarte txekak erdaraz betetzen egon behar dugunik, ez, oituzten joan beharko dugu eta emendik aurrera gure txekak euskaraz betetzen saiatu behar dugu, eta ez txekak bakarrik, geure bizitza euskaraz egin saiatu behar dugu. Ea denon artean gure hizkuntza aurrera ateratzen dugun.

Kasino Zaharra. Jubilatuen etxea bihurtuko dela diote, eta Udak onartu du hori egokitzeko erabakia. Presupuesto 55.993.984,- pesetako da; ia lehen bait lehen bukatua ikusten dugun eta herriko jubilauntzat toki alai eta egoki bat bila katzen den.

"HONDARRIBIA" aldirizkian idatzi nahi duenak, edo gure berri jakin nahi duenak, Udaletxeko 642340 telefonora jo beza, edo bertara joan eta Euskara Aspiatzordeaz galdetu. Baita, Korreosetan Udakal duen posta kutxara (apartado de correosera) bidali idazlanak